

II. GRAMATIKA

SUBJUNTIBOA III: ZER-NORI-NORK

1. Forma

a. Orainaldia					
<i>niri</i>	<i>zuri</i>	<i>hari</i>	<i>guri</i>	<i>zuei</i>	<i>haiet</i>
~	<i>diezazudan</i>	<i>diezaiodan</i>	~	<i>diezazuedan</i>	<i>diezaiedan</i>
<i>diezadazun</i>	~	<i>diezaiozun</i>	<i>diezaguzun</i>	~	<i>diezaiezun</i>
<i>diezaadan</i>	<i>diezazun</i>	<i>diezaion</i>	<i>diezagun</i>	<i>diezazuen</i>	<i>diezaien</i>
~	<i>diezazugun</i>	<i>diezaiozun</i>	~	<i>diezazuegun</i>	<i>diezaiegun</i>
<i>diezadazuen</i>	~	<i>diezaiozuen</i>	<i>diezaguzuen</i>	~	<i>diezaiezuen</i>
<i>diezadaten</i>	<i>diezazuten</i>	<i>diezaioten</i>	<i>diezaguten</i>	<i>diezazueten</i>	<i>diezaieten</i>

Oharra: Objektua plurala denean, *dieza-* \Rightarrow *diezazki-*

b. Iragana					
<i>niri</i>	<i>zuri</i>	<i>hari</i>	<i>guri</i>	<i>zuei</i>	<i>haiet</i>
~	<i>niezazun</i>	<i>niezaion</i>	~	<i>niezazuen</i>	<i>niezaien</i>
<i>zeniezadun</i>	~	<i>zeniezaion</i>	<i>zeniezagun</i>	~	<i>zeniezaien</i>
<i>ziezadun</i>	<i>ziezazun</i>	<i>ziezaion</i>	<i>ziezagun</i>	<i>ziezazuen</i>	<i>ziezaien</i>
~	<i>geniezazun</i>	<i>geniezaion</i>	~	<i>geniezazuen</i>	<i>geniezaien</i>
<i>zeniezadaten</i>	~	<i>zeniezaioten</i>	<i>zeniezaguten</i>	~	<i>zeniezaieten</i>
<i>ziezadaten</i>	<i>ziezazuten</i>	<i>ziezaioten</i>	<i>ziezaguten</i>	<i>ziezazueten</i>	<i>ziezaieten</i>

Oharra: Objektua plurala denean, *-ieza-* \Rightarrow *-iezazki-*

Gogoan izan:

- eN subjuntiboa:**
Dena guk egin diezaiozun nahi du horrek.
- eLA subjuntiboa:**
Dena guk egin diezaiozula agindu du.

Adibidez:

- \Rightarrow *Lan guztiak nik egin niezazkion nahi zuen.* (que le hiciera yo)
Zer egin behar da nahi duguna eman diezaguten? (para que nos den)
Jateko zerbait eman geniezaiola eskatu zigun. (que le diéramos)
Eman diezaiotela eskatu duena. (que le den)
Eska diezaiogun ahal duenari. (pidámosle)

ARIKETAK

1. ALDA ITZAZU ONDOKO ESALDIAK, ZER-NORI-NORK subjuntiboa erabiliz.

Adibidez:

(Zuek guri) egia **esatea** komeni da.

☛ Egia **esan diezaguzuen** komeni da.

Diru guztia berari **emateko** esan zigun.

☛ Diru guztia berari **eman geniezaiola** esan zigun.

1. Etxeko lanak egiten laguntzeko eskatu dio Mikelek Maiteri.
2. Paristik zerbait ekartzeko eskatu zioten gurasoek Matilderi.
3. Nahi duena egiten uzteko erregutu digu.
4. Lagunek berari hilean behin idaztea nahi du Gemak.
5. (Zuek) lotsagabe horiei kasu handiegirik ez egitea komeni da.
6. Medikuek Kontxiri zer egin behar duen garbi azaltzea komeni da.
7. Behar duzuen guztia lasai eskatzea nahi dut.
8. Atea irekitzea nahi zuen gizon hark, baina bada-ezpada ez genion ireki.
9. Diru guztia emateko eskatu zigun lapurrak.
10. Karneta erakusteko agindu die poliziak gazte horiei.
11. Beharrezkoa da zuek gazteek elkarri laguntzea.
12. (Guk) bisitariei harrera ona egitea nahi izaten zuen aitak.

2. BETE HUTSUNEA, subjuntiboa erabiliz.

Adibidez:

☛ Zor didazuna lehenbailehen ordain **diezadazun** komeni da.

1. Nori nahi duzu eman ... (nik) saria?
2. Dena guk egin ... nahi izaten zuen lantegiko nagusiak.
3. Azken berriak konta ... eskatu zion amak alabari.
4. Ikasleek kasu egin ... ahalegintzen zen beti Txomin.
5. Autoa utziko digu Mirenek baina txukun-txukun itzul ... nahi du.
6. Limosnatxo bat eman ... eskatu zigun eskaleak.
7. Zorrak barka ... eskatu dit Andresek, baina ez dizkiot barkatuko.
8. Berari esan geniona lagunari ere esan ... nahi du Marisak.
9. Sartzen utzi ... nahi nuen, baina ez zidaten atea ireki.
10. (Zuk guri) den-dena garbi azal ... komeni da.

3. ALDA ITZAZU ONDOKO ESALDIAK, -T(z)EA, -T(z)EKO formak erabiliz.

Adibidez:

Tele-mandoa berari **eman geniezaion** nahi izaten zuen.

➡ Tele-mandoa berari **ematea** nahi izaten zuen.

Egia **esan ziezaiotela** agindu zien epaileak lekukoei.

➡ Egia **esateko** agindu zien epaileak lekukoei.

1. Nahi zuena egiten utzi ziezaioten nahi izaten zuen Ferminak.
2. Gezurrik esan ez ziezadala esan nion mutil harro hari.
3. Hilean behin idatz geniezaion nahi zuen Idoiak.
4. Lagundu dizuetenei eskerrak eman diezazkiezuen komeni da.
5. Kameta erakuts geniezaiola agindu zigun ertzainak.
6. Ardoari urik bota ez ziezaiola eskatu zioten bezeroek tabernariari.
7. Bakean biziko bagara, beharrezkoa da denok elkarri lagun diezaiogun.
8. Utzitako dirua lehenbailehen itzul diezaiola eskatu dio Lupek Txomini.
9. Eskua elkarri eman diezaiotela agindu die arbitroak jokalariei.
10. Udarako lanposturen bat aurki geniezaiola eskatu zigun Michaelak.

SUBJUNTIBOA IV: NOR-NORK

Forma

a. Orainaldia						
	<i>ni</i>	<i>zu</i>	<i>hura</i>	<i>gu</i>	<i>zuek</i>	<i>haiek</i>
<i>nik</i>	~	ZAITZADAN	<i>dezadan</i>	~	ZAITZATEDAN	<i>ditzadan</i>
<i>zuk</i>	NAZAZUN	~	<i>dezazun</i>	GAITZAZUN	~	<i>ditzazun</i>
<i>hark</i>	NAZAN	ZAITZAN	<i>dezan</i>	GAITZAN	ZAITZATEN	<i>ditzan</i>
<i>guk</i>	~	ZAITZAGUN	<i>dezagun</i>	~	ZAITZATEGUN	<i>ditzagun</i>
<i>zuek</i>	NAZAZUEN	~	<i>dezazuen</i>	GAITZAZUEN	~	<i>ditzazuen</i>
<i>haiek</i>	NAZATEN	ZAITZATEN	<i>dezaten</i>	GAITZATEN	ZAITZATE(TE)N	<i>ditzaten</i>

Oharra: Indikatiboko -u- ➡ -za- ➡ (*nauzu* ➡ *nazazun*; *zaitugu* ➡ *zaitzagun*)

b. Iragana						
	<i>ni</i>	<i>zu</i>	<i>hura</i>	<i>gu</i>	<i>zuek</i>	<i>haiek</i>
<i>nik</i>	~	ZINTZADAN	<i>nezan</i>	~	ZINTZATEDAN	<i>nitzan</i>
<i>zuk</i>	NINTZAZUN	~	<i>zenezan</i>	GINTZAZUN	~	<i>zenitzan</i>
<i>hark</i>	NINTZAN	ZINTZAN	<i>zezan</i>	GINTZAN	ZINTZATEN	<i>zitzan</i>
<i>guk</i>	~	ZINTZAGUN	<i>genezan</i>	~	ZINTZATEGUN	<i>genitzan</i>
<i>zuek</i>	NINTZAZUEN	~	<i>zenezaten</i>	GINTZAZUEN	~	<i>zenitzaten</i>
<i>haiek</i>	NINTZATEN	ZINTZATEN	<i>zezaten</i>	GINTZATEN	ZINTZATE(TE)N	<i>zitzaten</i>

Oharra: Indikatiboko -u- ➡ -za- ➡ (*ninduzun* ➡ *nintzazun*; *gintuen* ➡ *gintzan*)

Adibidez:

- ➡ *Etxera eraman nazatela eskatu diet.*
(que me lleven)
- Etxera eraman nintzatela eskatu nien.*
(que me llevaran)
- Lantegian har zaitzadan nahi al duzu?*
(que te coja)
- Kanpora bota zintzaten salatu zintuen.*
(para que te echaran)